

«Ez dugu salbazio zientifiko- teknikorik behar, baizik eta erreskate kultural bat»

Kultur balioen eta mundu ikuskeren eremuan indarra jartzea garrantzitsua

da, Jokin Bergara Egurenen iritziz, krisi ekosozial honi aitzin egiteko. Era berean, politika publikoetan erradikaltasuna eta ausardia aldarrikatu ditu, «alternatiba herritar, berdinzale eta jasangarri baten» alde. «Horrek guztiok interpelatzeko gaitu. Eta munduarekin erresonantzian bizi nahi badugu, tokiko esperientzia arrakastatsuak eskalatu eta dimentsio ertain-handi batera eraman behar ditugu», defendatu du GAUR8rekin elkarrizketan.

Valentzian nabarmen agertu da klima larrialdiaren ondorioak zeinen bortitzak izan daitezkeen.

Kasu horretan, hedabideen tratamendua ere adierazgarria da, klima aldaketaren kausa aipatu bai, baina ez delako erdian jarri. 2024 hau historiako urterik beroena izan da, 1,5 graduko igoera gainditu baita. Zientzia argia da: planeta zenbat eta beroago, orduan eta maizago eta intentsuagoak halako gertaerak. Biodibertsitatearen ikuspegitik, bizitza sostengatzen duten espezie asko gal daitezke. Igotzen ez den zentigradu bakoitzarekin ondorio asko ekidin daitezke.

Justu duela urtebete, «Adaxka Lehorrak. Talka ekosozialaren biharamun politikoak» (Txalaparta) liburua aurkeztu zenuenean, lur kolektiboetan

jarri zenuen eraldaketarako itxaropena. Azaldu.

Gogoeta da, trantsizio ekosozialaren bidegurutze honetan, begirada politiko eta sozial batetik, norantz joko dugun. Adibidez, pentsatzekoa da, zientziak esaten digulako, epe ertainean, gaur egun normalizat jotzen ditugun produktu batzuk –haragia egunero kontsumitzeko aukera, hegaldiak, auto pribatua edota berogailua– eskasian sartuko direla. Orduan, galdera da: nola bana-

tuko dira baliabide horiek? Merkatuaren bidez, elite txiki batek sarbidea izateko edo, modu demokratikoago eta sozialki justuago batean, errazionatuz eta birbanatuz?

Zein itsasargi ikusten dituzu inspiratzeko eta jarraitzeko?

Herri mugimenduak eta sindikatuak egiten ari diren lana; Mekanerren esperientzia dugu Bizkaian, industrian langile borroka eta ekologismoa lotzen dituen. Politika publi-

1994an Eibarren sortua, soziologoa eta


bertsolaria da Jokin Bergara Eguren.

Kooperatibismoaz eta ekonomia

ekologikoaz ikertu du bere tesian eta

«Adaxka lehorrak» liburua idatzi du.

Maidor IANTZI GOIENETXE



koetan, nazioartean, badaude esperientzia interesgarriak, oso kontraesankorrak kasu batzuetan; adibidez, beti esaten da Sobietar Batasuna erori zenean Kuban nola lortu zuten jana birbanatzea, nahiz eta oso gaizki pasatu zuten. Hiri-gintzaren eta energia efizientziaren ikuspegitik uste dut jende asko eta oso ona ari dela lanean, bai Europan bai Euskal Herrian. Hor daude Goiener edota Izarkom, eredu komunitarioagoak planteatzen. Zen-

tzu horretan, jendea oso gauza politak egiteko gai ikusten dut. Horri heldu behar diogu.

Zer bide egiten ari da liburua?

Oso gai makroak dira batzuetan, kostatzen da lurreratzea. Eta eztabaida sortzen ari gara, ikuspuntu politiko bat ematen. Badago giro bat Jauzi Ekosozialarekin. Aurkezpenetan interesa sumatu dut; guztia inguratzen duen gai bat da, eta badago honi serio eta gozoz heltzeko jarrera bat.



Gorka RUBIO / FOKU

Norantz doaz Euskal Herrian politikak?

EA Eren kasuan, behintzat, go-bernukoak XX. mendeko kapitalismo fosilaren kodeetan oso sartuta daude, hazkunde ekonomikoa ongizatearekin lotzen dute oraindik. Gehiago inbertitu, azpiegitura gehiago, orduan produkzio handiagoa, aberastasun handiagoa, eta aberastasun horri esker ordain ditzakegu gero Osakidetza, hezkuntza eta beste zerbitzuak. Hori da beraien teoria.

Planetaren mugekin talka egiten ari ez ginen garai batean, agian, izan zitekeen. Orain arte sozialismoak ere hori pentsatu du: hazi eta gero hazkundera hori birbanatu. Kontua da, gaur egun, materialki beherrantz joanez pentsatu behar dela ongizatea. Klima aldaketa eta biodibertsitatearen galaren aldagaia ekuazioan sartzen denean, guztia birplantatu behar da, eta ez dut uste norabide hori daramatenik inondik inora. Hor ditugu

«Erronka da desaztea, galera mingarri bezala interpretatu ordez, hobeto bizitzearekin lotzea, zentzu askatzaile batean. Ez hain lotuta materialari, baizik eta harreman sozialetan eta kulturaletan gehiago sakonduta. Ongizatea ez baita hazten, loratu egiten da».

Guggenheim Urdaibai eta AHT, Bilbo AEBekin hegazkinenez lotu nahian ere ari dira... Ikuspuntu hori gairatu behar da, emisioak ahalik eta gehien gutxitzea delako erronka.

Gure hautuak ere garrantzitsuak dira: non erosi, nola mugitu...

Arazo handienetako bat zera da: maila batean bizi gara eta maila hori igotzen dugu kontsumo aukera gehiago izanda, etxebizitza edo kotxe hobe bat... Eta lehen geunden tokira bueltatzea galera moduan interpretatzen dugu. Erronka da itzulera hori, mingarri bezala interpretatu ordez, hobeto bizitzearekin lotzea, zentzu askatzaile batean. Ez hain lotuta materialari, baizik eta harreman sozial eta kulturaletan gehiago sakonduta. Ongizatea ez da hazten, loratu egiten da.

Norbere arduraren kasuan, kontua da ez ditugula kontsumo ohitura batzuk aldatu nahi, ez ditugulako aberatsak edo eliteak ikusten beren bizi maila jaisten: «Zergatik utzi behar diot nik hegaldiak hartzeari horiek jet pribatuetan mugitzen badira?». Galera erlatiboa da hori: «Nik zenbat galtzen dut ondokoak galtzen duenarekin alderatuta?». Geure burua justifikatzeko goikoak seinalatzen ditugu. Arazo nagusia sistema sozioekonomikoa da. Baina horrek ez digu eragin behar gure burua ez b; munduko %10 aberatsenen parte gara eta Euskal Herriko aztarna ekologikoa 2,5 planetarena da.

Non ikusten duzu erronka nagusia?

Baditugu txosten zientifiko zorrotzak, irakurketa ekonomiko landuak. Eta bigarren planoan geratzen da balio kul-

turalen, gure mundu ikuskeren eta ohitura multzoen gaia. Hor dago batailarik inportanteena. Ez dugu salbazio zientifiko-teknikorik behar, baizik eta erreskate kultural bat. Bada beste paradoxa bat ere: badakigu jabetzen eta produktuen banaketa modu kooperatiboago batean egin beharko dugula merkatuak sortzen dituen alderdirik mingarrienak ekiditeko, baina merkatuak berak deuseztatzen ditu hori egiteko baldintzak, indibidualismoa hauspotuz. Horregatik, kulturaren eremutik –antzerkia, kantua, zinema, bertsolaritza...– asko egin daiteke, egiten ari da jada, arrasto batzuk lagatzeko gizartearen pentsamenduan eta norabide honetan bultzatzeko.

Tesia Arrasateko kooperatibismoaz egin duzu, trantsizio ekologikoaren bueltan.

Galdera bat da: posible da enpresa batek bere burua desaztea eta bideragarri izaten jarraitzea? Baina egin daiteke kontrako galdera ere: ez badira enpresak desazten, egongo da materialik? Etorkizunean bideragarri izaten jarraitzeko murriztu egin behar dugu.

Nola irudikatzen duzu mundua bost-hamar urte barru?

Hamarkada hau erabakigarria izango da nazioarteko boterea nola banatzen den jakiteko eta argituko delako, era berean, nondik helduko diogun gaiari, ikuspegi ekosozialetik edo kofaxistatik. Badaude kezkarako oso zantzu argiak, nazioarteko egoera politikoa ikusita. Hori esanda, historiari begiratzen badiogu, gauza ederrak ere jaio dira oso momentu ilunetatik eta posible da gizarte berdinzale, jasangarri eta demokratikoagoak etortzea.

